

DR. LIBINGSTON

LENENGO URTEAK

Dabid Ligingston 1813n. urteko epaillaren emeritzagarrren egunean jaio zan, Eskozia'n, protestanteen sendian. Txiroak ziran eta zazpi seme-alaba janari-eske.

10 urtekoa zala asi zan lanean algodoi-lantegi baten egunean 14 ordu lanean egitekotan.

17 urtekoa zanean osagille ikastera joan zan eta 1840n. urtean amaitu eban goratasun aundiakaz.

20 urtekoa zala biurtu zan bere fedea sakonago bizi izatera.

MISIOLARI ETA LURRALDEEN IKERTZAILLE

Barruan berak somau eban deia, misiñoi-lurretan Barrio Ona zabaltzeko zan eta orretarako sartu zan protestanteen artean laikoa dauken misiñoi-alkarte batera. Bere guraria Txina'ra joatea zan, baiña Afrika'ra bialdu eben.

1842n. urtean Afrika'n barrurago beste ostera bat egin eban. Bera bakarrik joan zan eta Kalahari basarmortua igaro eban. Barri Ona zabaltzen eta gaisoak osatzen.

LEIOEN ARTEAN BAKARRIK

Beste ostera bat egin eban Afrika'n barrurago eta leio-talde bat aurkitu eban. Berak entzunda eukan leio bat il ezkerro besteak iges egiten dabela Ori egin nai izan eban!

Baiña bere gaiñera jauzi egin eutson leoi batek eta berak izkilluagaz zauritu egin eban, baiña leoi jaso egin zan eta barriro gaiñera etorri jakon eta besoan aginkadea egin be bai. Urrean egoan lagun baten tirokatu eban fusillagaz eta oneri be leoiak aginka egin eutson. Beste leoi bat be zauritu eban.

Libingston'en eskoiko besoa beti egoan miñez eta txarto, ezertarako-ezean. Atzera etorri zan lagunakana.

EZKONTZEA

Ezkondutxo be egin zan 1884n. urtean. Eta ezkontzakotxo ibillaldia be egin eban idiakaz burdi baten, baiña 300 km. eginda.

Gero Robinson'en antzera jokatu eban, aberatsai kendu txiroai emoteko. Lanera be sartu zan, lenengo ogia egiten, gero kandelak egiten, geri jaboia egiten, eta batera Barri Ona zabaltzearen lana egiten eban. Gogorra zan bizitzea baiña zoriontsu bizi zan.

AFRIKA'N

1852n. urtean emaztea ta seme-alabak Afrika'ra eroan ebazan baiña bera sortalderantz sartu zan 1856n. urtera arte. Jeografiko Errege-Alkarteak urrezko domiñea emon eutson.

1856n. urtean barriro sartu zan Afrika-barrura. Apirillean emaztea il jakon eba berak lan barri bat asi eban. Jopuak edo esklaboak askatsearena. Orretarako eskaria egin eutson Portugal'eko erregeari baiña onek Inglaterarako erregeari eskatu eutson Libingston aterateko Afrika'tik eta ori egin eban. 1864n. urtean etxean dauka-gu.

Baiña laster joan barriro Afrika'ra, oraingo onetan Zanzeze'ra, Kongo eta Nilo ibaien iturrien billa (1866). Gero lurralde geiago aurkitu ebazan eta lurraldeko biztanleak aurka jarri eta lantza bat jaurti eutsoen samara. Geroago zugatz bat jausi jakon gaiñera.

Libingston geroago ta gaisoago egoan, oiñetan zauriak eukazala, gorputzean sukarra... Gaiñera arabiar batzuk eukazan osagaiak kendu eutsoezan eta beretzat gertu egoan korreoa be bai.

STANLEY LAGUNTZAILLE

Olako egoeran lau egun igaro ebazanean bere antzekoa zan Henry Stanley iparrameriketarra joan jako bere billa, bizi eta zan be ziur jakin bagerik eta onek ikusi ebanean, beste bagerik, auxe izan zan agurra:

“Libingston dotorea, uste dot!”

1872n. urtean biak aurrera jarraitu eben. Tanganikara be eldu ziran, baiña Libingston litera baten eroien.

ERIoTZEA

1873n. urtean, orrillaren lenengo egunean, Stanley'k zarata bakan bat entzun eban. Urreatu zan eta bera aurkitu eban belauniko eta otoitzean ba'lego lez. Ildago egoan. Gorpua enbalsamatu eben bertakoak ekien eran, gatz asko botata, 14 egun sikatzen euki eta gero Zanzibat'era. Bederatziti illebeteko bidea zan, 1.500 km.

1878n. urteko jorraiaren 18n. egunean gorpua Westminster'eko eleizara eroan eben. Illetan bere seme-alabak eta Stanley be egon ziran eta Stanley auxe esan eban: “Berak biurtu nindun, ori billatu bagerik”.

OLAZAR'tar Martin'ek